

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LUIAONDOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onartzea baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko arautegiaren ordenantza

Luiaondoko Administrazio batzar honek, 2015eko uztailaren 16an egin zen bilkuran, hasierako onarpena eman zion baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko arautegiaren ordenantzari. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, ALHAOn osorik argitaratzen da, indarrean sar dadin:

Baratzeak esleitzeko eta kudeatzeko arautegiaren ordenantza

I. titulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Arautegiaren xedea

Arautegi honen helburua da Luiaondoko Kontzejuaren baratzeen egungo esleipendunen egoera arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

1. Arautegi honen aplikazio eremukoak izango dira Luiaondoko Kontzeju barruko baratzeetako lurzati guztiak, baldin eta kontzeju horren jabetzakoak badira.

2. Eremu subjektiboari dagokionez, arautegi honetan jasotako arauak kontzeju honetako eskubide eta izatezko egoiliar denei aplikatu ahal izango zaie, baldin eta eskubidea badute baratzeak erabiltzeko, eta horien gozamina izateko eta aprobetxamendua egiteko, eta arautegi honetan aurreikusitako baldintza guztiak betetzen baldin badituzte.

3. Salbuespen gisa, egungo lagapen hartzaileei eskuratuta dituzten eskubideak errespetatuko zaizkie.

3. artikulua. Lagapen epea

Lagatzen den aprobetxamenduaren edo erabileraren aldia bost urtekoa izango da, eta luzatu egin daiteke, gehienez ere, hamabost urtera arte. Luzapena egitea adostu dela ulertuko da aldeetako batek ez badu kontrakorik adierazten lagapena edo horren luzapenak bukatu baino hilabete lehenago. Esleipendunak baratza garbi eta behar bezala utziko du hurrengo esleipendunak lantzeko moduan, lizentziaren epea amaitzen den hilean.

4. artikulua. Araubide aplikagarria eta arautegia

1. Baratze horien erabilera jabari publikoko ondasunen erabilera komun berezi gisa kalifikatu behar da, Toki korporazioen ondasunei buruzko Arautegiaren 75.1.b) artikulua ezartzen duenez; beraz, lizentzia lortu behar da, eta lizentzia kopurua mugatua denez, baratzen ustiapenerako erabilera baimena eskatzaile guztien artean zozketa eginez esleituko da.

Dena den, Luiaondoko Administrazio Batzarrak, salbuespeneko neurri gisa, lehentasuna emango die baratzeen egungo lagapen hartzaileei, eskuratu dituzten eskubideak babestearren.

2. Beraz, jabari publikoko ondasunak erabiltzeko baimena denez gero, jendaurreko informazio aldiari ekingo zaio, bando baten bidez.

3. Baratzeen esleipen, jabetza eta erabilerari aplikatuko zaion araubidea arautegi honetan aurreikusitakoa izango da.

4. Izaera subsidiarioarekin, ondorengo hauetan jasotako arauak aplikatuko dira: azaroaren 3ko 33/2003 Legea, herri administrazioen ondarearena, eta Toki erakundeen erregelamendua.

5. artikulua. Lagapen titulua

1. Lizentziak ematen duen baratzea erabiltzeko eskubidea pertsonala eta besterenezina da, eta lagapenerako ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean balioko du soilik. Erabiltzaileak ezingo du, inolaz ere, laga, zergapetu, edo kostubidez edo doan eman lizentziak baimendutako erabilera baliatzearekin lotutako eskubideak. Eskubide horiek ezingo zaizkio beste inori eman edozein kasutan.

2. Lagatako lizentziaren titulua "prekario" motatakoa izango da erabiltzailearentzat, eta Luiaondoko Administrazio Batzarrak, interes publikoko kausa justifikatuak direla-eta, edozein unetan lizentzia baliogabetu ahal izango die lagapendunei, administrazio batzarrarengandik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe.

II. titulua. Esleipen eta iraugitze prozedura

6. artikulua. Onuraduna izateko baldintzak

1. Baratzeak okupatzeko lizentzien onuradunak izan daitezke Luiaondon erroldatutako pertsonak, baldin eta esleipenerako deialdiaren iragarpena argitara eman baino gutxienez bi urte lehenago herrian bizi badira, eta, horrez gain, ondorengo baldintza hauek betetzen dituztenak:

- a. Fisikoki gai izatea baratzean izango diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko .
- b. Luiaondoko Kontzejuarekin dituen zerga betebeharrak edo bestelakoak ordainduta izatea.
- c. Beste baratze bateko erabiltzailea den familia unitate bateko kide ez izatea.
- d. Aurretik baratzeren bat izan dutenek zehapen bat jaso ez izatea, arautegi honetan aurreikusten den araren bat ez betetzeagatik.

7. artikulua. Lizentziak esleitzeko eskumena eta prozedura

1. Baratzeen okupazioa eta horren erabilera eta gozamena ahalbidetzen dituzten lizentziak emateko prozedura aplikagarria konkurrentzia erregimenean izango da, kontuan izanik lizentzia kopurua mugatua dela.

2. Prozedura hori administrazio batzarrak abiaraziko du ofizioz, ohiko lekuetan jarritako bando bidez.

3. Baratzeen esleipenean interesa duen pertsonak eskaera aurkeztuko dio administrazio batzarrari, honako agiri hauekin batera:

- a. NANaren edo ordezkari agiri legalaren fotokopia.
- b. Aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak edo zinpeko aitortpena.

4. Administrazio batzarrak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea bi urte daramatzala erroldatuta eta herrian bizitzen, ez duela arau-hausterik egin eta kontzejuaren tasak ordainduta dituela.

5. Salbuespenez, baratzeen egungo lagapendunek ere, beren eskubideak baliatu ahal izateko, eskaera bat aurkeztu beharko diote administrazio batzarrari, baratze baten onuraduna dela adierazita eta azken urteko tasaren ordainketaren kopia bat aurkeztuta.

6. Gutxienez hogeita egun baliaduneko epea ezarriko da eskaerak aurkezteko. Jarraian, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onartuko da, eta kontzejuaren iragarki taulan argitaratuko da. Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte gehienez bost egun naturaleko epean. Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta

baztertuen behin betiko zerrendaren ebazpena egingo da. Ondoren zozketa publiko bat egingo da, eta horren data behin-behineko zerrenda adierazten duen bando berean iragarriko da.

7. Zozketa egin ondoren, behin-betiko esleipen zerrenda eta erreserba zerrenda argitaratuko dira gizarte zentroko iragarki taulan.

8. artikulua. Lizentzien esleipena

1. Esleipendunei ematen zaien lizentziak argi azaldu beharko ditu honakoak: xedea, baratzaren kokapena, erabiltzailearen eskubide eta betebeharrak eta lizentziaren indarraldia.

2. Baratzaren erabilera baimentzen duen lizentzia esleitu ondoren, esleipendunak urteko kuotaren zenbatekoa autolikidatu beharko du eta fidantzari dagokion zenbatekoa eman beharko du esleitutako lizentzia jasotzeko.

9. artikulua. Lizentziak iraungitzea

Baratzeak erabiltzeko eskubidea ematen duten lizentziak:

1. Epea betetzean iraungiko dira.
2. Bertan behera geldituko dira edo kenduko dira:
 - a. Adostuta.
 - b. Ebazpen judizialen bitartez.
 - c. Lagapen hartzaileak uko egiteagatik.
 - d. Arautegi honetan jasotako betebeharrak eta xedapenak ez betetzeagatik.
 - e. Lizentziaren titularren heriotzagatik.

10. artikulua. Lizentzia baliogabetzeko prozedura

1. Erabiltzailea izateko eskubidearen galera administrazio batzarrak kudeatuko du lizentzia baliogabetzeko prozedura batean. Prozedura horretan erabiltzaileari baliogabetze horren arrazoiak azalduko zaizkio eta 10 eguneko epea emango zaio alegazioak aurkezteko. Horiek aztertu ondoren, espedientea behin betiko ebaztuko da.

2. Erabiltzaile izaera galtzeak, ez du inondik inora ere ekarriko, inolako kalte-ordaina izateko eskubidea.

III. Titulua. Erabilera eta aprobetxamendurako baldintzak

11. artikulua. Erabilerarako baldintza orokorrak

Baratzeak erabiltzeko esleipendunak honako betebeharrak izango dituzte:

1. Barazki espezieak direnak baino ez lantzea edo landatzea baratzeetan.
2. Erabiltzeko lagatzen diren instalazioak eman ziren egoeran eta landareri gabe ematea, salbu eta kontsumorako landatzen diren espezieak.
3. Gordetzea eta zaintzea erabiltzeko ematen diren ondasunak. Horri buruzko gorabeherak administrazio batzarrari jakinaraziko zaizkio.
4. Kontzejuari baratzearen jabetza itzultzea lizentziaren epea amaitzen denean eta jaso zuen baldintza berberetan.
5. Hasieran lagatzen den lurzatiaren egiturari eta azalerari eustea, eta ezin izango dira mugak aldatu, ez eta administrazio batzarraren baimenik gabeko bestelako obrarik egin ere.
6. Gainerako herritarrei eragozpenik ez sortzea.
7. Laborantzan, garbiketean edo baratze gainerako zereginetan erabiltzeko substantzien erabilera saihestea, baldin eta kalterik eragin badezakete zoruan, ibaietan edo akuiferoetan.

8. Saihestea herritarrak gogaitu ditzaketen animaliak egotea.

9. Bertan behera ez uztea baratzeen laborantza edo erabilera, eta, batik bat, ez utzi fruituak bildu gabe, baldin eta kiratsa sorrarazten baldin badute.

10. Saihestea baratzeetan materialak edo tresnak gordetzea edo metatzea, ez baldin badira ezinbestekoak lurraren laborantzarako.

12. artikulua. Hondakinen trataera

1. Baratzeen erabiltzaileek garbi izan behar dute lurzatia. Horretarako, konpost ontziak ego-
nez gero, hara botako dituzte hondar organikoak, deskonponsa daitezten.

2. Gainerako hondakinak Aiarako Kuadrillak horretarako jarri duen gunean edo edukiontzian
baino ez dira botako, jarri baldin badu.

13. artikulua. Lurraren fruituen xedea

1. Erabiltzaileek lurraren laborantzatik eskuratzen diren fruituak biltzeko eskubidea izango
dute, baina soilik erabili ahal izango dituzte norberaren kontsumorako.

2. Debekatuta dago erabiltzaileek baratzeetatik jasotzen dituzten baratzeko produktuak
saltzea, baita horien trafikoko komertziala eragingo lukeen eragiketa komertzialik ere.

14. artikulua. Mantenimendu eta finantzazio gastuak

1. Baratzearen erabiltzailea arduratuko da baratzearen laborantzak sortzen dituen gastuez.

2. Erabiltzaileek udalak arrazoiz eta zuzenbideari jarraiki onartzen duen edozein karga jasan
beharko dute (tasa, kanonak etab.), baratzeen erabilerak sortutako kostuak ordaintzeko.

3. Kontzejuak kanon eta fidantza bat ezarriko du, berme gisa. Lehenengo kanonarekin ba-
tera ordainduko da, eta lizentzia bukatzen denean itzuliko da, salbu eta arautegi honen 20.1.c
artikulua aplikatu behar bada.

a. Kanona: 10 euro urtean.

b. Bermea: 50 euro.

15. artikulua. Erabiltzaile eskubidearen galera

1. Arautegi honetan xedatutakoa ez betetzeak baratzearen emakidaren lizentzia galtzea
ekarriko du.

2. Bereziki baratzearen erabiltzaile eskubidea galarazten dute honakoek:

a. Eskubideari uko egiteak edo bertan behera uzteak, baratzen erabileraren onuradunak
administrazio batzarrean aurkeztuta.

b. Erroldatzearen galerak, edo iraunkortasunez ez bizitzeak kontzejuko etxebizitza batean,
benetan eta eraginkortasunez, lizentziaren indarraldiak irauten duen bitartean.

c. Lursailaren erabilera edo laborantza bertan behera uzteak, urtebete baino luzaragoan.

d. Esleipena eragin zuten beste edozein zirkunstantzia desagertzeak.

e. Baratzearabiltzeak arautegi honetan ezarritako beste erabilera eta helburu batzuetarako.

f. Administrazio batzarrak edo beste administrazio publiko batek hirigintza edo azpiegitura
planen bat onartzeak.

g. Bizikidetza, auzokidetza edo elkartasunik gabeko jarreraren inguruko oinarrizko arauak ez
betetzeak beste baratzezainekin.

h. Huts larri edo oso larriengatik isun bat jartzeak, lizentzia galtzea eragingo lukeena beti.

IV. titulua. Erantzukizun araubidea

16. artikulua. Baratzearen laborantzarengatiko erantzukizuna

1. Baratzeen erabiltzaile bakoitzak erabilera lagapenari dagokion baratzean gaiten diren jardueren erantzukizuna izango du. Erabiltzaileak arautegi honen erabateko ezagutzarekin lizentzia eskaera egiten duenean suposatu egiten da baratzak erabiltzeko lizentziaren esleipendunak guztiz onartzen dituela hemen ezarritako arauak; hortaz, laborantzatik eta erabileratik eratorritako erantzukizuna onartu beharko du ezinbestean, arautegi honetan ezarritako parametroetan eta, bereziki, bere erantzukizun indibiduala onartuz hauetan:

a. Laborantzaren prozesuan, kontzejua ez baita laborantza prozesuaren eragin edo emaitzen erantzulea.

a. Lurraren laborantza motan, kontzejuak ez baitu lanabesen erabileraren gaineko erantzukizuna, ezta horien erabilerak erabiltzailearen osasunean edo osotasun fisikoan duen eraginarena ere.

b. Baratzeko lapurketa, kalte edo ekintza bandalikoetan, eta erabiltzaileak gordetako edo bildutako produktu, fruitu edo lanabesetan; ezingo dizkio erantzukizun horiek kontzejuari egotzi inola ere.

c. Animaliek baratzean edo landutako produktuetan eragin ditzaketen kalteen kasuan.

d. Baratzean bildutako produktuen erabiltzailearen, besteen edo kontsumitzaileen osasunean izan dezaketen eraginean.

e. Erabiltzaileak administrazio batzarrari jakinarazi behar dio lagatako baratzean edo instalazioetan kalterik edo hutsik ikusten baldin badu, norberarenean zein beste baten baratzean.

17. artikulua. Hirugarrenen eta kontzejuaren aurreko erantzukizuna

1. Erabiltzaileek erantzukizun bera izango dute hirugarrenei egindako kalteen kasuan, izan zein ez bestelako baratzeen erabiltzaileak, eta baratzea erabiltzean gertatzen diren kalteen kasuan.

2. Erabiltzaileek hirugarrenei edo hirugarrenen ondasunei euren baratzeen laborantzarengatik eragindako erantzukizunen arabera, erabiltzaileek kaltetuaren aurrean erantzun beharko dute derrigorrez, eragindako kalte edo lesioen ordaina emanez.

3. Kontzejuak erabiltzeko lagatzen dituen instalazioei edo baratzeari eragindako kalteengatik sortuko balitz erantzukizun hori, kontzejuak dagokion kalte ordaina eskatzeko eskubidea erabiltzeko du, aplikagarria den zuzenbide administratiboaren arauak jarraiki.

4. Lizentziaren titularrek, instalazioak narriatzearen kasuetan, gauzak hartu ziren moduan itzuli edo konpondu egin beharko dituzte.

5. Erabiltzaile batek ez balu egingo gauzak konpontzeko betebeharra, kontzejuak zuzenean egin ahal izango du, kostua hari egokituz, administrazioak kasu horietarako dirua eskuratzeko dituen botereak erabiliz.

V. titulua. Diziiplina araubidea

18. artikulua. Arau orokorrak

1. Baratzeen erabiltzaileek arautegi honetan ezarritako guztia bete beharko dute eta, aurreikusi ez diren kasuetan, tokiko erakundeen ondasunen gaineko arautegia bete beharko dute.

2. Arautegi honek ezarritakoaren aurkako edozein jarrera arau hauste gisa tipifikatuta dago eta kontzejuak zigortu egingo du.

3. Zigorren kopuruaren graduazio eta zehaztapena irizpide hauen arabera egingo da:

- a. Eragindako kaltearen kopurua.
- b. Arau hausleak jasotako etekina.
- c. Nahita edo nahi gabe egin den.
- d. Izaera bereko arau hauste bat edo gehiago egitea urte bateko epean.

5. Erabiltzaileen erantzukizuna nagusia edo zuzenekoia izan ahalko da, baldin eta eurak badira arau-haustearen egileak, edo subsidiarioa, erabiltzaileak ekintzen egileari baratzera sartzen utzi badio.

19. artikulua. Arau hausteak

1. Arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak kategorietan kalifikatuko dira, jarrera arau hauslearen edo instalazio eragindako kalteen intentsitatea edo erruaren mailaren arabera.

2. Zehazki eta aurrekoari kalterik egin gabe, honako jarrerak arau hauste arintzat joko dira::

- a. Herritarrei eta beste erabiltzaile batzuk gogaitu ditzaketen animaliak egotea.
- b. Ez betetzea administrazio batzarrak baratzeen erabiltzaileei emandako jarraibideak.
- c. Baratzeen erabiltzaileen beste edozein jokabide, baldin eta arautegi honetan kontzejuak ezarritako betebeharren aurkakoa izan eta jokabide hori larria edo oso larria ez bada.

3. Arau hauste larritzat joko dira honako jarrera hauek:

a. Ez betetzea erabiltzeko lagatzen diren baratzeak onik zaintzeko agindua, baratzeak kaltetu edo narriatu diren kasuetan.

b. Lurzatian obrak edo aldaketak egitea, administrazio batzarrak aldeztatik baimendu ez baldin baditu.

c. Gainerako baratzezainak edo herrikideak gogaitzea

d. Lurraren, zoruaren edo azpiko lurraren narriadura eragin lezaketen espezieak edo landareak lantzea.

e. Baratzeetan onartzen ez diren barbakoa, estalpe edo bestelako elementu finkoen instalazioa.

f. Baratzeak laborantzaren sastrakak edo hondarrak erretzea, baita baratzeen barnean edo nolako sua piztea ere.

g. Bi huts egite arin edo gehiago biltzea urtebete berean.

4. Arau hauste oso larritzat joko da honako edozein jardunbide:

a. Baratzearen erabilera hirugarren pertsoneri lagatzea.

b. Gainerako baratzezainei eragindako lesioak, edozein erabiltzailek edo harekin dagoen hirugarren batek eragindako ekintzek eraginda.

c. Lurra, ibaiak edo akuiferoak kutsatzea.

d. Beste erabiltzaile batzuei baratzeen ohiko funtzionamendua eragozteak.

e. Lagatzen diren instalazioak edo/eta lursaila bera larriki narriatzea.

f. Landatzea, ereitea, biltzea edo izatea debekatuta dauden landare psikotropikoak ekoiztea.

g. Baratzeen ustiapenak emandako produktuak komertzializatzea.

h. Nortasun, adin edo baratzeen erabilera esleitzeko garrantzitsua den beste daturen bat faltsutzea, edo nortasuna ordeztzea.

i. Bi hutsegite larri edo gehiago egitea lizentziaren esleipenaldian.

j. Administrazio batzarrak ezarritako zehapenak ez betetzea.

20. artikulua. Zehapenak eta zehatzeko prozedura

1. Arautegi hau ez betetzeagatik egindako edozein arau hauste honela zehatuko da:

a. Lizenziaren titularrak egindako arau-hauste arinak kaltea konpontzeko edo zuzentzeko zehapena izango du, bai eta ahozko ohartarazpena ere.

b. Lizenziaren titularrak egindako arau-hauste larriak kaltea konpontzeko edo zuzentzeko zehapena izango du, bai eta idatzizko ohartarazpena ere arau-hausteari buruz.

c. Lizenziaren titularrak egindako arau-hauste oso larriak lizentzia baliogabetzea ekarriko du. Baliogabetze horrek ez dio erabiltzaileari kalte-ordainik jasotzeko aukerarik emango.

2. Arau-hauste larria edo oso larria egindakoan, administrazio batzarrak zehapen espedientea irekiko du eta arau-haustearen kalifikazioa jakinaraziko dio, idatziz, lizenziaren titularrari, bai eta zergatik den hutsegitea azalduko ere. Horrez gain, zehapenaren betearazi baino lehen, 20 eguneko epea emango da, lizenziaren titularrak alegazioak egin ditzan. Lizentzia eman zenean jarritako fidantzaren konfiskazioarekin ez badira estaltzen egin den arau-hausteak sortutako kalteak edo galerak, administrazio batzarrak beretzat gordetzen du administrazio bidetik edo ohiko justiziaren zigor bidetik erreklamatzeko.

Azken xedapena

Arautegi hau aplikatzerakoan edo bertan arautu gabeko alderdi zehatzei buruz sor daitezkeen zalantzak kontzejuak ebatziko ditu administrazio batzarraren irizpena eta egoki iritzitako txosten tekniko eta juridikoak jaso ondoren.

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Luaiondo, 2016ko urtarrilaren 15a

Errejidore-lehendakaria

MAITE ALONSO DE LA VALLINA